


# STEEI LAS



## Irakaskuntza pribatua

Lege-gordailua: BI-2

2010ko azaroa

45. zenbakia



• Nolako ikasturte hasiera! • Lansarien murrizketak • Hezkuntza marko hirueleduna • Lan erreforma aurretik eta ondoren • STEE-EILASEk bat egiten du Israelen kontrako BDZ kanpainarekin • Berriak • Lan osasuna: WIFI sistema

**ARABA:** Eulogio Serdan, 5

**BIZKAIA:** Nikolas Alkorta, 3 (Zabalburu)

**GIPUZKOA:** Baso-txiki, 30-34 (atzealdea)

**NAFARROA:** Descalzos, 72 (Ionja)

01012 Gasteiz

48003 Bilbao

20015 Donostia

31001 Iruñea

☎ 945 14 11 04

☎ 944 10 02 98

☎ 943 46 60 00

☎ 948 21 23 55

☎ 945 14 43 02

☎ 944 10 13 60

☎ 943 45 36 27

☎ 948 22 97 90

araba@stee-eilas.org

bizkaia@stee-eilas.org


gipuzkoa@stee-eilas.org

navarra@stee-eilas.org

Geure gaiak dira!

## Irakaskuntza Pribatua

¡Nolako Ikasturte hasiera!	2
Lan sarien murrizketa	3
Hezkuntza marko hirueleduna	5
Lan erreforma aurretik eta ondoren	6
STEE-EILASek bat egitendu Israelen kontrako BDZ kanpainarekin	7
Berriak	8
Lan osasunak: Wifi sistema	8



Murrizketak lansarrietan eta erretiroan, hauteskunde sindikalak...

## *Nolako ikasturte hasiera!*

Negoiazio kolektiboa geratuta (ez patronalak ezta gehiengo duen sindikatuak, ez dakite zer egin) ikastetxe pribatuetan ikasturte hasiera oso gogorra izan da, azken urteetako gogorrena.

Alde batetik, krisi ekonomikoa sortu ez dugunok haren ondorioak ordaintzeko erabili nahi gaituzte soldaten murrizketak onar araziz. Alde-bateko inposaketa legez kanpoko murrizketetan, honek sektorearen irudi erreala erakusten digu: administrazioaren aldetik guztiz mediatizatutako kartoizko negoziazio kolektiboa, eta gehiengo sindikalaren liderazgorik gabekoa.

Zapateroren eskutik erretiro partzialaren mozketak ere iritsi zaigu, ondorioz urte bete atzeratuko da sektoreko gehiengo batentzat nahiz eta urte honetan bertan batzuk dagoeneko erretiroaz disfrutatzen egon beharko luketen. Ulergaitza den arren, lan baldintzak diskriminatorioak ez direla bermatu behar dutenak (Gizarte Segurantza, patronalak, sindikatuak beraien ordezkari mailaren ...) ez dira egon gertakarien mailara eta sektore berean erretirorako sarbidean egoera desberdintzaileak gertatu dira.

Hau gutxi balitz, kasu askotan egoera aprobetxatuz ("aprovechando que el Pisuerga ...") enpresak dagokion lanaldiaren parte bat (%15), lanera bueltatzeko eskatzen hasi dira, batzuk jubilatu zirenetik eskola agertu ez arren. Maiz legalitatearen marra finetik gertu, enpresa batzuk modu unilateralean orain arteko irizpideak eraldatuz, kasu bakoitzak ezkututzen duen egoera pertsonala alboratuz. Ikasturte honetan sektorea hauteskunde sindikaletan murgildua dago. Bukatzen denean ikastetxe pribatu kontzertuen ordezkariak sindikalaren gehiengo nabarmen bat berrituko da.

Aldatuko ote dira gauzak?

Gure eskuetan dago orain arte fruitu gutxi eman dituen errealitate sindikala aldatzen joateko aukera. Proiektu berriak behar dira eta baita hurrengo urteetan geldiarazita dagoen negoziazio kolektiboa berpiztuko duten pertsona berriak ere. Hazten jarraitu behar dugu gehiengo berriak eraikitze eta sektorea sindikalki berpizteko. Eta horretarako zure laguntza behar dugu, ahal duzun neurrian: zeure burua aurkeztu hautagai gisa, zure lankideak horretarako animatuz STEE-EILAS en izenean, hauteskunde sindikalean bozkatzuz, sindikatuaren informazioak ikastetxean zabalduz...









## STEE-EILASEK BAT EGITEN DU ISRAELEN KONTRAKO BDZ KANPAINAREKIN, BESTE EUSKAL SINDIKATUEKIN BATERA

Uztailak 9a, Israelen kontrako BDZ (Boikot, Desinbertsioak eta Zehapenak) deialdiaren 5. urteurrena izan zen eta 6. urteurrena Nazioarteko Justizia Auzitegiak Israelek eraikitzen duen harresia ez dela legezkoa eta, ondorioz, eraitsi behar dela esan zuenetik.

Horregatik, euskal sindikatuok (STEE-EILAS, ELA, CCOO, LAB, UGT, ESK, HIRU, EHNE, CGT, LSB-USO) justiziaren, berdintasunaren eta giza-eskubideen aldeko borrokan, Israelgo Estatuaren aurkako BDZ kanpainarekin bat egiten dugu. Idatzitako agiria Bilboko La Bolsa Eraikuntzan aurkeztu genuen.

Jardunaldian euskal sindikatuok Palestinako herriarekiko elkartasunari dagokionez dugun konpromisoa argi utzi genuen; "batasun hori baterako deialdien bidez islatu da gurean: Israelek Gazaren aurka burutu zuen erasoaren kontra 2009ko urtarrilaren 24an eginiko manifestazioaren eta Espainiako Estatuak Israelgo Armadarekin armen alorrean duen lankidetzaren aurka 2010eko ekainaren 3an egin zen kontzentrazioaren bidez".

Agirian, euskal sindikatuok ondoko adierazpen hau egin genuen: "Israelgo Estatuaren aurka abiarazi den BDZ kanpainarekin bat egin, eta Palestinan gauzatzen ari diren apartheid politikarekin eta Palestinako lurraldearen legez kontrako okupazioarekin ez kolaboratzeko konpromisoa hartzen dugula".

Halaber, honako konpromiso hau ere hartzen dugu: "beren jardunean Palestinako herriaren eskubideen gainetik interes ekonomikoak, politikoak

edo bestelako interesak jartzen dituzten eta Palestinaren okupazio koloniala aldeztu edo hura gauzatzen kolaboratzen duten euskal erakunde eta enpresak jendaurrean salatzea".

Euskal sindikatuok kanpaina honekin bat egitea erabaki genuen, Giza Eskubide unibertsal, banaezin eta elkarrekikoak babestea baitu oinarri (Giza Eskubideen Adierazpenaren 30. artikulua); izan ere, kanpaina hori baliabide zibiko eraginkorra da, injustizia eta indarkeria instituzionalaren ondoriozko egoerak aldarazteko eta justizia eta bake bidean aurrera egiteko.



Sindikatuoen ustez, bakoitzak ahal duen neurrian, Israelgo Estatuaren aurka Boikot, Desinbertsioak eta Zehapenak Kanpaina Orokorra bultzatzea tresna zeharo bidezkoa da, harik eta Israelek, ondoren azaltzen diren alorrei dagokienez, nazioarteko zuzenbidea bete arte:

- Palestinaren okupazio militarra bukaraztea.
- Zisjordaniako harresiaren eraikuntza geldiaraztea eta harresi hori erauztea.
- Arrazaren karizko bazterkeria-sistema bukaraztea.
- Gazako blokeoa zeharo eta behin betiko kentzea.

Errefuxiatu edo iheslariak beren lurraldeetara itzultzeko eskubidea

